# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**3365**

385/1995 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren Gauzatzea Koordinatzeko Sailarteko Batzordea sortzeari buruzko Dekretua aldatzeko dena.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzeko den urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren Gauzatzea Koordinatzeko Sailarteko Batzordea sortzeari buruzko apirilaren 6ko 97/1993 Dekretua egokitu egin behar da. Izan ere, 97/1993 Dekretuaren 2. atalean aipatutako batzordearen osakera zehazten da eta 1/1995 Dekretuaz aldatu egin ziren zenbait sail aipatzen dira.

Dekretu honen bidez, 2. atal horri beste idazkera bat eman nahi zaio. Horrela, alde batetik, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta ihardun–arloak finkatzeko den urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaz sartutako aldaketetera egokitu egingo da; eta bestetik, beste bi sail, Garraio eta Herrilan Saila eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila, sartu egingo dira batzorde horretan, apirilaren 6ko 97/1993 Dekretuaren gehigarrizko xedapenetatik bigarrenean eskatutako baldintzak bete ondoren.

Ondorioz, Lehendakaritzak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko uztailaren 27an aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–*

Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren Gauzatzea Koordinatzeko Sailarteko Batzordea sortzeari buruzko apirilaren 6ko 97/1993 Dekretuaren 2. atala aldatu egiten da, eta honela idatzirik geratuko:

*«2. atala.–* Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren Gauzatzea Koordinatzeko Sailarteko Batzordeko kide, hauek izango dira:

a) lehendakari: lehendakaria;

b) lehendakariorde: Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria;

c) bokal: ondoren aipatzen diren sailek ordezkari bana aukeratuko dute, sailburuorde maila duena:

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**3365**

DECRETO 385/1995, de 27 de julio, de modificación del Decreto sobre creación de la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La entrada en vigor del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, hace necesaria la adecuación al mismo del Decreto 97/1993, de 6 de abril, sobre creación de la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuyo artículo 2, relativo a la composición de la citada Comisión hace referencia a una serie de Departamentos del Gobierno Vasco que resultan modificados por el Decreto de referencia.

El presente Decreto tiene por objeto dar nueva redacción al artículo 2 del mismo, a fin de adaptarlo a las modificaciones introducidas por el Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, así como la adición para su incorporación a la Comisión de dos nuevos Departamentos, el de Transportes y Obras Públicas y el de Comercio, Consumo y Turismo, una vez cumplidas las exigencias fijadas en la Disposición Adicional Segunda del Decreto 97/1993, de 6 de abril.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 27 de julio de 1995

DISPONGO:

*Artículo único.–*

Se modifica el artículo 2 del Decreto 97/1993, de 6 de abril, sobre creación de la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi queda redactado de la siguiente forma:

*«Artículo 2.–* La Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, estará integrada por los siguientes miembros:

a) Presidente: El Lehendakari

b) Vicepresidenta: La Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

c) Vocales: Una persona representante, con rango de Viceconsejero/a, designada por cada uno de los Departamentos que a continuación se indican:

– Ogasun eta Herri Administrazio Saila
– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
– Herrizaingo Saila
– Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila
– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
– Osasun Saila
– Kultura Saila
– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila
– Garraio eta Herrilan Saila
– Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila

Sail horiek ordezko bat ere izendatuko dute, ahal izanez gero, ordezkatutakoaren maila bera duena.

d) Idazkari: Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkaritza Orokorreko titularra.

Idazkaria agertzen ez bada, edo gaixorik egonez gero, bokalik gazteenak beteko ditu idazkari lanak.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko uztailak 27.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

– Hacienda y Administración Pública
– Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social
– Interior
– Industria, Agricultura y Pesca
– Educación, Universidades e Investigación
– Sanidad
– Cultura
– Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente
– Transportes y Obras Públicas
– Comercio, Consumo y Turismo

Estos Departamentos designarán, a su vez, una persona sustituta que, de ser posible, deberá tener el mismo rango que la sustituida.

d) Secretario/a: La persona titular de la Secretaría General del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

En los supuestos de ausencia o enfermedad de ésta, realizará las funciones de Secretaría el/la vocal más joven».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

### 3366

399/1995 DEKRETUA, uztailaren 27koa, etxerik etxeko zerbitzuen ematea arautzen duena.

Elektragailuei, ikuztegiei eta automobil tailerrei buruzko arautegia onartzea gizartearentzat zein onuragarri gertatu den ikusita, bidezkoa eta egokia dirudi kontsumitzaileen eta zehazki zerbitzuak jasotzen dituztenen babeserako aurrerapauso bat ematea. Izan ere, etxerik etxeko zerbitzuen arloak berebiziko eragin ekonomikoa du hiritar arruntarengan baina arautu gabe dagoenez, gero eta arruntago ari dira bilakatzen kontsumitzaileen interesen eta profesionalen arteko leialtasunaren aurkako iharduerak.

Dekretu honen bitartez kontsumitzaileen eta etxeen mantenimendua egitea lanbide dutenen arteko harremanen oreka bermatu nahi da, kontsumitzaileentzat garrantzi handikoa baita beren etxea eta etxearen osagarriak behar bezala edukitzea. Helburu horrekin aitortu zaio kontsumitzaileari zerbitzua jaso aurretik idatzizko aurrekontua eskatzeko eskubidea eta horregatik ezarri

## DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

### 3366

DECRETO 399/1995, de 27 de julio, por el que se regula la actividad de prestación de servicios a domicilio.

Siendo conocido el carácter beneficioso que ha tenido para la sociedad la aprobación de los reglamentos sobre talleres de automóviles, electrodomésticos y lavanderías, parece lógico y oportuno dar un nuevo paso adelante en la protección del consumidor, usuario de servicios. A este respecto, el sector de servicios a domicilio no sólo tiene una importante incidencia económica sobre el ciudadano medio sino que también, en ausencia de una regulación, empiezan a ser cada día más frecuentes conductas contrarias a los intereses del consumidor y a la lealtad de las relaciones profesionales.

El presente decreto pretende garantizar el equilibrio en las relaciones entre el consumidor y quienes se dedican profesionalmente a una actividad tan importante para éste como es el mantenimiento de su vivienda y elementos de la misma. Para ello, siguiendo los principios establecidos por la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usua-